



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

LANA ETA JUSTIZIA

1. Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2018ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik	2
2. Diru-laguntzak enpresarien elkarreei eta erakunde sindikalei beren jardueraren eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartza duten erakunde sindikalei 2018ko ekitaldirako diru-laguntzak ematea	6
4. Gizarte-ekonomian ekitea	7
5. Enpresetarako laguntza teknikoa	9
6. Gizarte-ekonomiako prestakuntza	11
7. Elkarre-egiturak babestea	13
8. Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzea	15
9. Enpresen arteko lankidetzak	17
10. Gizarte-ekonomiako langileen benetako parte-hartzea	18
11. Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE)	20
12. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendugastuetarako.....	22
13. Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko	23
14. Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txandak eta atxilotu, ikertu edota kartzeleratutakoei eman beharreko legezko laguntza	24
15. Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txandak.....	26
16. Abokatuen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamenduko gastuak	27
17. Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamenduko gastuak.....	28
18. Etxeko indarkeriako txanda	29
19. Espetxeratuentzako lege-laguntza	30
20. Doako laguntza juridikoa, Abokatuen Elkargoak. Abokatuen prestakuntza	31
21. Diru-laguntza Deialdi lehiakorra. Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzak ematearen gainekoa	33



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2018ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik

2.- Araua

237/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskunderen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituena.

AGINDUA, 2018ko ekainaren 28koa, Lan eta Justiziako sailburuarena. Honen bidez, hasiera ematen zaio Hauteskunde Sindikalen Batzordeko, lurralde batzordeetako eta Ikuskaritzako kide diren sindikatuentzako 2018 urterako diru-laguntzak emateko prozedurari, hala ezarrita baitago azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan.

AGINDUA, 2018ko urriaren 5koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez 2018. urterako ematen baitira azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako Hauteskunde Sindikalen Batzordeko, lurralde-batzordeetako eta Ikuskaritzako kide diren sindikatuentzako diru-laguntzak

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2000/12/0005772a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803697e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805105e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen Batzordean eta Lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntza hauetarako kreditu osoa 520.000,00 € da, eta Lurralde-batzordeetako eta Hauteskunde Sindikalen Batzordeko kide diren erakunde sindikalen artean banatu da.

2018. urtean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak hauteskunde-prozesuak jarraitzeko lanak egin dituzte, langileen eskubideak bermatze aldera. Aipatutako ekitaldian, EAEn 2.000 hauteskunde sindikal baino gehiago egin dira eta 1.000 bisita baino gehiago egin dira hauteskunde sindikalak egiten ari ziren Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietara.

Bestalde, Hauteskunde Sindikalen Batzordeak urte hasieran egin zuen bere ohiko bilera. Biler horretan egon ziren batzordea osatzen duten lau sindikatuetakoa bina ordezkari. Horrez gain, Lurralde-batzordeek ohiko bilerak egin dituzte hamabostero; hau da, 22 bilera, gutxienez, lurralde historiko bakoitzean. Eta



beharrezkoa izan denetan ere, aparteko bilerak egin dira. Bilera horietara, batzorde bakoitza osatzen duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari joaten dira.

Aurrekontu-programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera eta hauteskunde-prozesuak jarraitzeko 1.200 jarduera egitea aurreikusita zegoen; horrenbestez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera sendotzeko helburua bete dela adieraz dezakegu.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean agerpen aktiboa izateak zein hauteskunde-prozesuak kontrolatu eta zaintzeko zereginetan parte hartzeak prozesu horiek behar bezala egiteko bermea ez ezik, lortutako emaitzak ere sendotzen dituzte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten

2.- Araua

191/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematekoa, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

AGINDUA, Lan eta Justiziako sailburuarena, 2018ko abuztuaren 9koa, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako deialdia 2018rako gauzatzen duena. Dekretu horrek, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak emateko aukera arautzen du, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804405e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804405e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900884e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzeko dira, horien bitartez beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren aurrekontua 710.000 eurokoa izan da (497.000 euro ordainketa-kreditu gisa eta 213.000 euro konpromiso-kreditu gisa 2019ko ekitaldirako). Zenbateko guzti hori banatu da.

Aurretik zehaztutako diru-laguntzak emanez enpresarien elkarteek eta erakunde sindikalek beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko aurkeztutako prestakuntza-planak ordaindu dira.

Enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezzen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da.

Fitxa hau prestatzeko unean ez dago lortutako emaitzak zehazterik, diruz lagundutako prestakuntza-



planak deialdiaren osteko ekitaldiaren martxoaren 30a arte gara baitaitezke; hala, erakunde eskatzaileek bi hilabeteko epea dute egun horretatik hasita amaierako justifikazio-memoria aurkezteko.

Nolanahi ere, deialdian aurten parte hartu duten 10 erakundeek aurkeztutako eskaeretan 747 prestakuntza-ekintza proposatu dituzte guztira, eta gutxi gorabehera 20.138 lagunek jaso dute prestakuntza 2018ko ekitaldiko deialdiaren barruko planen bitartez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Espedienteak izapidetzea	10	10
Prestakuntza-ekintza	850	747
Prestakuntza jaso duten lagunek	24.600	20.138



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak ematea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 23koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzako dirulaguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804404e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren aurrekontuan ezarritako kopuru osoa (1.100.000,00 €, 880.000,00 € 2018rako ordainketa-kreditu gisa eta 220.000,00 € 2019rako konpromiso-kreditu gisa) banatu da.

Jarduera sindikalaren berezko gastuez gain, erakundeetako kideei eskainitako esparru soziolaboraleko prestakuntza-jarduerak diruz lagundu dira.

Diru Laguntzen Programan diru-laguntzen 20 espediente izapidetzea aurreikusita zegoen. Azkenik, dirulaguntzak 15 erakunde sindikalei eman zaizkie ordezkariaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 16.387 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 17.366tik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua	20	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomian ekitea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 18koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira gizarte-ekonomian ekiteko eta gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikatua bultzatzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Argitalpena: AGINDUA, 2018ko uztailaren 18koa (2018ko uztailaren 27ko EHAA, 144. zk.)

Onuradunak: EBAZPENA, 2019ko apirilaren 15ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2018ko uztailaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, iragarri eta arautzen dira gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eta gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikatua bultzatzeko laguntzak. (2019ko apirilaren 30eko EHAA, 80. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da jarduera hauetarako diru-laguntzak ematea:

- a) Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, dauden enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne.
- b) Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotutako sustapen-ekintzak egitea, ondorengo jarraipena eta enpresa-kudeaketarako doako aholkularitza barne.
- c) Krisiaren ondorio nabarmenak agertzen dituzten sozietate anonimo edo mugatuaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa egitea.
- d) Gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako beharrezkoak diren jarduerak egitea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

1. Guztira 142 eskaera aurkeztu dira programa horretan sartzeko, eta eskaera horietatik 140 onartu dira.
2. Enpresa berrien sorkuntzaren barruan, 128 enpresa-proiektu egiteko laguntzak eman dira; horri lotuta, 348 enplegu berri sortu dira eta, enplegu horietatik, 127 emakumeek bete dituzte. 2 eskaera ukatu egin dira, Aginduan araututa dauden hainbat arrazoiren ondorioz.
3. Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko 4 entitate sustatzailek garatutako sustapen-jarduerak finantzatu dira.
4. Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokionez, sustapeneko 3 nodo-entitatearen lanari lagundu zaio



eskualdeko eremuan.

5. 5 bideragarritasun-azterlan egiteko diru-laguntzak eman dira, egoera larrian dauden merkataritza-sozietateak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko.

Aurrekontu-betearazpena:

	Aurrekontua	Egindakoa	%
Kooperatibak eta lan-sozietateak sortzea	1.754.735	1.227.650	70%
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileak			
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketak	50.000	15.000	%30
Lagundutako lurralde-sustapeneko planak	210.000	210.000	%100
GUZTIRA	2.014.725	1.452.650	%72

Erabilgarritasun eta eragin soziala: Nabaria da diru-laguntza programa hau oso lagungarria dela gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko, bai kooperatiba gisa, bai lan-sozietate gisa. Horren erakusgarri, sozietate berrien sorkuntzari lotutako parametroak egonkorrak izan dira azken urteetan, eta enpresa-jarduera berriak eta lanpostu berriak sortu dira. Diru-laguntzen Agindu honen barruko gainerako laguntza-ildoak, enpresa berriak eratzekoak baino garrantzi txikiagoa izanik ere, eraginkortasunari eta efizientziari eutsi diote, Zuzendaritzaren ustez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN	EMAITZA
Sortutako kooperatiba eta lan-sozietate kopurua	175	128
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua eta kalitatea	6	4
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketen zenbatekoa	8	5
Lagundutako lurralde-sustapeneko planen zenbatekoa	3	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresetarako laguntza teknikoa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 26koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko diru-laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Argitalpena: AGINDUA, 2018ko uztailaren 26koa, 2018ko abuztuaren 2ko EHAA, 148. zk.

Onuradunak: EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendaria, zeinaren bidez argitaratzen baita 2018ko uztailaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko dirulaguntzak arautu eta laguntzetarako deialdia egin zen. (2019ko apirilaren 12ko EHAA, 72. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa horren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan kudeaketa-tresnen ezarpena sustatu nahi da, enpresak haien administrazioa, zuzendaritza eta, azken finean, lehiatzeko ahalmena hobetuko duten tresnez hornitzeko.

Bestalde, gizarte-ekonomiatik eta gizarte-ekonomiarako bultzatutako elkarrekiko bermeko sozietateen bitartez gizarte-ekonomiako erakundeen enpresa-finantzaketa errazteko laguntza-ildo bat jasotzen da. Horretarako, diruz laguntzeko moduko 3 jarduera mota hartzen dira kontuan:

- a) Urteko Kudeaketa Plana landu eta ezartzea.
- b) Gizarte Ekonomiako erakunde adierazgarriek bermeak emateko beharrezkoa den alde aurreko ekonomia- eta finantza-azterlana egitea.
- c) Plan Estrategikoa, Pertsonen asebetetzea neurtzeko programak, Kostua kalkulatzeko eta kontrolatzeko metodoak egin eta ezartzea, edo aginte-taula oso bat ezartzea, Euskadin ordezkariak duten erakundeen aldetik euren elkartuei eman beharreko zerbitzuen antolakuntzatik eratorriak, legeak eta/edo estatutuak betetzeko.
- d) Aholkularitza espezifiko merkataritza-kudeaketari buruz, 2018an "Emprender" programarekin bat egiten duten enpresentzat.
- e) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea. Gomendio zehatzak jasoko ditu enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an lortutako kopuruak: Diru-laguntzak jasotzeko 43 eskaera aurkeztu dira, eta, zenbait arrazoi direla-eta, 10 ezetsi egin dira. Laguntzak honela banatu dira:

- Merkataritza-plangintzan 7 aholkularitzak jaso dute Sailaren diru-laguntza
- Plan Estrategikoak: 18
- Pertsonen asebetetzea neurtzeko programak: 11
- Suspertzeko planak: 6
- Urteko Kudeaketa Plana: 16
- Berme finantzarioen gaineko bideragarritasun-azterketak: 2 onuradun (lan-sozietate batzuk biltzen dituen elkarte bat eta kooperatibak biltzen dituen beste bat).

Aurrekontu-betearazpena

	Aurrekontua	Egindakoa	%
Kudeaketa tresnak	200.000	138.975	%69
Bermeak emateko bideragarritasun-azterketa ekonomiko-finantzarioak	50.000	13.000	%26
Guztira	250.000	151.975	%61

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIK.	EMAITZA
Diruz lagundutako kudeaketa tresnen zenbatekoa	45	58
Egindako azterketen zenbatekoa (*)	20	21

* Orain arte aurkeztutako justifikazioan oinarritua.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako prestakuntza

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko abuztuaren 29koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Argitalpena: AGINDUA, 2018ko abuztuaren 29koa. 2018ko irailaren 7ko EHAA, 173. zk.

Onuradunak: EBAZPENA, 2019ko apirilaren 1ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena. Honen bidez, argitaratzen da 2018ko abuztuaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Gizarte Ekonomiako prestakuntzarako dirulaguntzak arautzen dira). (2019ko apirilaren 5eko EHAA, 67. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programan horren bidez, honako jarduera hauek egiten lagundu nahi da:

* Prestakuntza-arloan:

- Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza espezifiko eta bereizira bideratutako ekintzak, unibertsitate- eta/edo sozietate-eremuan kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko ezagutzari hasiera emateko, edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko edo perfektionatzeko helburua dutenak.
- Gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatzeko eta abian jartzeko ekintzak, unibertsitate-prestakuntzaren parte gisa, eta haren tutoretzaren pean.

* Gizarte-ekonomiaren hedapen-arloan:

- Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak editatzea.
- Aldian behingo jardunaldiak egitea.
- Ekitaldi bereziak egitea gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen ikusgaitasuna bultzatzeko, hala nola oroipen edota omenaldi egunak, sari berezien banaketak eta antzeko ekitaldiak.
- Zabalkunde-jarduerak hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak emango du horien gaineko oniritzia, beti ere praktikara eramanda jarduerok izan dezaketen benetako eraginaren kuantifikazioa eta zenbatespena oinarri hartuta.
- Gizarte-ekonomiako gaiak ardatz izango dituzten unitate didaktikoak sortzea, ikastetxeetan zabalkunde egin dadin. Horrez gain, material didaktikoa sortuko da, gizarte-ekonomiaren arloa EAEko eskola-curriculumean txerta dadin.
- Euskal gizarte-ekonomiari buruzko narrazio bat eraikitzea, zeinak kontuan hartuko baititu arlo horren baitako familia edo ildoen identitate berezia eta errealitatea. Halaber, eraldatze-tresnak



sortzea izango du xede; tresnok pertsonaren garrantzia, enpresa-antolamenduaren demokrazia eta gizarteari egiten zaizkion ekarpenak nabarmenduko dituzte, beti ere enpresetan ezartzeari begira.

- Gizarte-ekonomiaren euskal ereduari buruzko ikuspegi estrategiko globala sortzea, zeinak kontuan hartuko dituen printzipio europarren garapena eta Euskadiko gizarte-ekonomiaren errealitatea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an lortutako kopuruak: 18 diru-laguntza eman zaizkie hainbat erakunde eskatzaileri. Diru-laguntza jaso duten proiektuek honako kopuru hauek izan dituzte aurkeztutako jarduerak eta jardunak egitean:

- Gizarte-ekonomiako prestakuntza espezifiko eta berezia emateko ekintzak: prestakuntza hori 1.000 pertsonak baino gehiagok jaso dezakete.
- Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldi behingo argitalpenak editatzea: 9 argitalpenek jaso dute diru-laguntza.
- Aldian behingo jardunaldiak egitea: 24 jardunaldik jaso dute diru-laguntza.
- Gizarte-ekonomia ikusarazteko ekitaldi bereziak: 2
- Zabalkunde-jarduerak, hainbat formatu eta euskarritan garatzekoak (grafikoa, irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia): 3
- Gizarte-ekonomiaren gaineko unitate didaktikoak, ikastetxeetan zabaltzeko: 1
- Euskal gizarte-ekonomiaren errelatoa lantzea: 1
- Euskal gizarte-ekonomiaren ereduak: 1

Aurrekontu-betearazpena: Deialdian aurreikusitako 582.800 euroko zenbatekotik, guztira 563.914,50 euroko laguntzak (%97) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Trebatutako ikasle kopurua	1.000	1.000
Egindako jardunaldi kopurua	20	24
Diruz lagundutako argitalpen kopurua	8	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarte-egiturak babestea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 18koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkartee-egiturak finkatzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko uztailaren 18koa 2018ko uztailaren 27ko EHAA, 144. zk.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 9koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da 2018ko uztailaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkartee-egiturak sendotzeko laguntzak ezarri ziren, eta deialdia egin). (2019ko apirilaren 24ko EHAA, 77. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako erakundeen elkartee-egiturak finkatzea:

- a) Lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
- b) Lan elkartukoez bestelako kooperatibak eta elkartee konfederalak.
- c) Ekonomia solidarioko elkarteeak eta enplegu-zentro berezien elkarteeak.
- d) Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura-gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile-gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an lortutako kopuruak:

Gizarte-ekonomiari lotutako Euskadiko 12 elkartee-egitura mantentzen lagundu ahal izan da. Zehazki, honako hauek izan dira:

- Lan elkartuko kooperatiben federazio 1.
- Lan-sozietateen talde 1
- Kooperatiben konfederazio 1.
- Lan elkartukoez bestelako kooperatiben 3 federazio eta kooperatiben elkartee bat.
- Ekonomia solidarioko elkartee 1.



- Enplegu-zentro berezien 2 elkarte.
- Langile autonomoei lotutako 3 elkarte.

Aurrekontua gauzatzea: 692.348 euroko diru-laguntzak eman ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Diruz lagundutako elkarte eta erakunde kopurua	14	12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 4koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetara bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena eta haietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko uztailaren 4koa. 2018ko uztailaren 6ko EHAA, 130. zk.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 15ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2018ko uztailaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun izango diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak iragartzen eta arautzen dira). (2019ko apirilaren 30reko EHAA, 80. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako hau da: bazkide langileak edo lan-bazkideak gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko laguntzea, epe jakin batean (2017ko abuztuaren 23tik 2018ko uztailaren 61ra bitarte). Lau motako hartzaileak daude:

- a) Kooperatiba edo lan-sozietate batean sartzeko diren langabeak, dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez hiru hilabeteko antzintasunaz inskribatuta egon behar dute.
- b) Bazkideak ez diren langileak, besteren konturako lan-kontratuarekin.
- c) Desgaituak.
- d) Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiatzearen eta ustiatze mistoen titularrak, betiere nekazaritza-kooperatibetan bazkide gisa sartu badira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Kapitalerako ekarpenen diru-laguntza partzialaren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan 152 bazkide sartzeko bultzatu da, honako banaketa honekin:

- 1 langabe sartu da.
- Besteren konturako 93 langilek diru-laguntza jaso dute gizarte-ekonomiako enpresa bateko bazkide langile edo lan-bazkide bihurtu direnean.
- Desgaitasunen bat zuten 138 pertsonak laguntza publikoa jaso dute gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide langile gisa sartu direlako.
- Nekazaritza-kooperatibetan sartu diren eta diru-laguntza jaso duten bazkideak 23 izan dira.

Aurrekontu-betearazpena: guztira 314.926 euroko laguntzak onartu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Pertsona langabeak	60	1
Desgaitasunen bat duten pertsonak	20	138
Nekazaritza-ustiategien titularrak	40	23
Besteren konturako langileak	80	93



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen arteko lankidetzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 26koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko uztailaren 26koa. 2018ko abuztuaren 2ko EHAA, 148. zk.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2018ko uztailaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez, Gizarte Ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako dirulaguntzak arautu eta laguntzetarako deialdia egin zen. (2019ko apirilaren 15eko EHAA, 73. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- Gizarte-ekonomiako enpresen adierazgarri diren elkarteek beren bazkideentzat lankidetzaproiektu bat lantzea eta ezartzea.
- Akordioak landu eta formalizatzea, eta enpresen arteko lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzea, gizarte-ekonomiako enpresek bat-egiteko beharrezkoak direnak barne.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresen arteko lankidetzarako proiektuak eta haien ezarpena: 2
- Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egiteak: 1
- Enpresen arteko lankidetzarako bideragarritasun-azterlanak. 7

Aurrekontu-betearazpena: Diru laguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 166.667 euroko zenbatekotik, guztira 115.200 euroko laguntzak (%69) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Diruz lagundutako proiektu kopurua	15	7
Diruz lagundutako akordio eta lankidetzak kopurua	5	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako langileen benetako parte-hartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 23koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan langileen benetako parte-hartzea bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia: AGINDUA, 2018ko urriaren 23koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan langileen benetako parte-hartzea bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

Onuradunak: EBAZPENA, 2019ko apirilaren 1ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena. Honen bidez, argitara ematen da 2018ko urriaren 23ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, gizarte-ekonomiako enpresetan langileen benetako parte-hartzea bultzatzeko dirulaguntzak arautzen dira).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Metodo eta tresna egokiak garatu eta ezartzea, langileen parte-hartzea erraztu eta hobetzeko gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan.
- b) Langileen parte-hartzea sustatzeko eta arlo horretako jardunbide egokiak zabaltzeko azterlanak egitea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

14 eskaera aurkeztu dira, eta horietako bat ezetsi egin da. Hauek dira diru-laguntza jaso duten jarduerak:

- Metodo eta tresnak: 12
- Langileen parte-hartzea sustatzeko eta arlo horretako jardunbide egokiak zabaltzeko azterlanak: 3

Diru laguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 250.000 euroko zenbatekotik, guztira 142.850 euroko laguntzak (%57) onartu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Parte-hartzea sustatzeko politikak diseinatzeko azterketak	2	3
Zabalkunde-kanpainak	2	-
Enpresetako parte-hartze planak	10	12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE)

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 3koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak, bai eta laguntza horiek jasotzeko deialdia egin ere.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko urriaren 3koa. 2018ko urriaren 10reko EHAA, 196. zk.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 9koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendarirena. Honen bidez argitaratzen da 2018ko urriaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean enpresen gizarte erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko dirulaguntzak arautzen dira, eta deialdia egin). (2019ko apirilaren 24ko EHAA, 77. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- EGEari buruzko prestakuntza-metodologiak lantzea.
- Enpresetan EGEa ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) iraunkortasun-memoriak lantzearen bidez.
- Enpresetan EGEa aplikatzeak dituen onurak aztertzea eta zenbatzea, eta EGEaren kultura zabaltzea, horretarako jardunbide egokiak identifikatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- EGEari buruzko prestakuntza-metodologiak lantzea: 4
- Enpresetan EGEa ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) iraunkortasun-memoriak lantzearen bidez: 4
- Enpresetan EGEa aplikatzeak dituen onurak aztertzea eta zenbatzea, eta EGEaren kultura zabaltzea, horretarako jardunbide egokiak identifikatuz: 5

Aurrekontu-betearazpena: Diru laguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 100.000 euroko zenbatekotik, guztira 92.130 euroko laguntzak (%92) onartu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Enpresen egindako EGE planak	6	4
EGE sustatzeko ekintzak	2	5
Erakundearteko Euskal Foroaren bilerak.	2	-



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendugastuetarako

2.- Araua

2018ko ekainaren 11ko Agindua, Lan eta Justizia sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei bake-epaitegien 2018ko funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

EHA 120 zbk., 2018ko ekainaren 22koa

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Botere Judizialaren Lege Organikoak udalerraren eremuan txertatutako organo gisa eratzten ditu Bake Epaitegiak, eta horregatik ez zaio uko egin udalen lankidetzari organo horien baliabide materialak hornitzeari dagokionean.

Horiek horrela, abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.

Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietak funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontuan jasotakoaren %92.08 erabili da.

Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendugastuetarako diru-laguntzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Udalen diru-laguntzen zuriketa	236 Udal	% 100
Aurrekontu-exekuzioaren zenbatekoa eta ehunekoa	% 100	% 100



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko

2.- Araua

Agindua, 2017ko irailaren 19koa, Lan eta Justizia sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2018ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

- Deialdia: Agindua, 2017ko irailaren 19koa EHAA 196 zbk., 2017ko urriaren 13koa
- Ebazpena: 2018ko urtarrilaren 19ko Ebazpena, EHAA 25 zbk., 2018ko otsailaren 5koa

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora bidera ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdia egin da eta ebazpena eman da, eta helburu horretarako zeuden 30 beka eman dira; hala ere, onuradun baten (1) ukoa dela eta, ez da ekitaldian zehar dena exekutatu, helburu horretarako aurrekontuan jasotakoaren %84.81 erabili baita.

Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegokoa justizia aparatuan integratuko baitira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatzaile kopurua	Zehaztugabea	50



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txandak eta atxilotu, ikertu edota kartzeleratutakoei eman beharreko legezko laguntza

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12).

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa, zeina honako honek indargabetu baitu: Doako Laguntza Juridikoari buruzko 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa (2018-11-06ko EHAA, 2019-01-01ean jarri zen indarrean).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

1/1996 Legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>

110/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/07/1203072e.pdf>

153/2018 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805444e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen dutenek zaintza judizial eraginkorra dutela bermatzea; horrez gain; 1/1996 Legeak beste norbanako eta erakunde batzuei ere onartzen die diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Asistentziagatik ordaindutako sarien gastua 9.920 eurokoa izan da (aurrekontua 12.000 eurokoa zen).

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen ezarpena erraztu da eta jarraipena egin zaio gai horretan indarrean dagoen araudiari berau betetze aldera; ondorioz, EAEko abokatuen elkargo ofizialei ordaindu egin zaie beren abokatuek ofiziozko txandan zein zaintza-txandan egindako jarduketa guztiengatik Elkargo horiek hiru hilerik behin emandako datuen arabera, 2018an (hain zuzen ere 2017ko 4. hiruhilekoan eta 2017ko lehen 3 hiruhilekoetan) ofiziozko txandan 26.291 jarduketa egiaztatu eta ordaindu ziren: 5.583 Araban, 12.423 Bizkaian eta 8.285 Gipuzkoan. Halaber, 1412 programaren memoriako kalkuluen arabera, DLJko 5.500 bat espediente bideratuko ziren Araban, 8.000 bat espediente izango ziren Gipuzkoan, eta Bizkaian 16.000 bat izango ziren. Kalkuluen arabera guztira DLJko 29.500 espediente inguru bideratuko ziren, eta 2018ko likidazioen osteko datuen arabera 29.232 bideratu dira, hau da, espero zenaren antzeko datua.

Datu hauei zaintza-txandako jarduketarako gehitu behar zaizkie. Abokatuen elkargoen arabera, guztira 20.434 jarduketa egiaztatu dituzte (3.391 Araban, 8.818 Bizkaian eta 8.225 Gipuzkoan).

1412 programaren memoriak % 75ean ezarri zuen eskubide hori aitortzen duten ebazpenen kopurua;



datuen arabera, hala ere, zenbateko hori % 82ra iristen da, hau da, 23.953 kasutan eman zen eskubidea aitortzearen aldeko ebazpena (genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren ondoriozko ebazpen positiboak edo aldekoak barne), guztira 29.232 espedienteren artean.

Programak gizartean duen eragina osoa eta erabatekoa da. Izan ere, beren prozedura judizialerako legez ezarritako doako laguntza juridikoaren eskubidea baliatu duten pertsona guztiei doako defentsa eman diete abokatuek.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Doako Justizia Batzordeen bileren zk.	66	64
Doako laguntza juridikoari buruzko esp. zk.	29.500	29.232
Eskubidea aitortzen duten ebazpenen kopurua %	75%	82%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txandak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12).

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa, zeina honako honek indargabetu baitu: Doako Laguntza Juridikoari buruzko 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa (2018-11-06ko EHAA, 2019-01-01ean jarri zen indarrean).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

1/1996 Legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>

110/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/07/1203072e.pdf>

153/2018 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805444e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen dutenek zaintza judizial eraginkorra dutela bermatzea; horrez gain; 1/1996 Legeak beste norbanako eta erakunde batzuei ere onartzen die diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea ezartzea erraztu da, eta arloan indarrean dagoen araudia zer neurritan betetzen den aztertu da. Izan ere, ofiziozko txandan aitortutako doako justiziaren esparruan egindako jarduketa guztiak ordaindu zaizkie EAEko prokuradoreen elkargoei. Elkargo horiek emandako hiru hilerik behingo datuen arabera, 2018an 17.027 prozedura bideratu dira (Arabara 3.692, Bizkaian 8.326 eta Gipuzkoan 5.069).

Programak erabateko gizarte-eragina izan du, prokuradoreen doako ordezkariak eman baitzaie beren prozedura judizialearako doako laguntza juridikoaren eskubidea aitortu zaien herritarrei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Doako Justizia Batzordeen bileren zk	66	64
Doako laguntza juridikoari buruzko esp. zk.	29.500	29.232
Eskubidea aitortzen duten ebazpenen kopurua %	75%	82%



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamenduko gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12).
110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa, zeina honako honek indargabetu baitu: Doako Laguntza Juridikoari buruzko 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa (2018-11-06ko EHAA, 2019-01-01ean jarri zen indarrean).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

1/1996 Legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>
110/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/07/1203072e.pdf>
153/2018 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805444e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak ezarri bezala, elkargo profesionalen ardura izango da doako letradu-laguntza, defentsa eta ordezkartza zerbitzuak arautu eta antolatzea. Araudi horren arabera, eskumena duten Administrazio Publikoari dagokien OJZ Orientazio Juridikoko Zerbitzuen funtzionamenduari euste aldera abokatuen elkargoei izaten dituzten gastuak ordaintzea; beti ere herritarrei doako laguntza juridikoaren eskubidea bermatzeko asmoz

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea ezarriz (38. artikulua), eta OJZ Orientazio Juridikoko Zerbitzuen funtzionamendu operatiboak abokatuen elkargoei eragiten dizkien gastuak –aseguru-gastuak barne– aztertu ondoren, 2017ko aurrekontuetan ezarritako zenbatekoak ordaindu zaizkie.

Diru-laguntza eman beharra ezartzen duten arauetan aurreikusitako emaitzak lortu dira; horrek laguntzen gizarte-onura eta gizarte-eragina bermatu ditu. Abokatuen elkargoei ematen zaien kontraprestazioa da, xedetzat duena doako laguntza juridikoa emateko zerbitzuen funtzionamendu operatiboak, herritartasuna eskuratu aurreko aholkularitza eta orientazioaz arduratzen diren unitateek eta aurkezten diren eskaeren behin-behineko kalifikaziorako lanek eragiten dizkien kostua ordaintzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dago adierazlerik, guardiako txanden eta ofiziozko txanden kontzeptuan aurreko urtean sortutakoa hartzen da oinarritzat, 110/2012 Dekretuaren arabera.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen elkargoa. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamenduko gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12).

110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa, zeina honako honek indargabetu baitu: Doako Laguntza Juridikoari buruzko 153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa (2018-11-06ko EHAA, 2019-01-01ean jarri zen indarrean).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

1/1996 Legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>

110/2012 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/07/1203072e.pdf>

153/2018 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805444e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen dutenek zaintza judizial eraginkorra dutela bermatzea. Kasu honetan diru-laguntzetarako partidaren berariazko xedea da prokuradoreen elkargoen ofiziozko txandaren funtzionamendu operatiboak eragiten dituen gastuak ordaintzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea ezartzea erraztu da; lege horren helburua da herritar behartsuenei gainerako herritarrei bezala zaintza judizial eraginkorra bermatzea eragozten duten oztupoak ezabatzea. Lortutako emaitza horiekin, arauak elkargoak diruz laguntzera behartzen dute, eta, horrela, haien gizarte-onura eta -eragina bermatzen da. Izan ere, ofiziozko txandaren funtzionamendua bermatzeagatik ematen zaie ordain hori prokuradoreen elkargoei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dago adierazlerik, guardiako txanden eta ofiziozko txanden kontzeptuan aurreko urtean sortutakoa hartzen da oinarritzat, 110/2012 Dekretuaren arabera.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxeko indarkeriako txanda

2.- Araua

Abokatzaren Euskal Kontseiluak eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak 2007ko otsailaren 26an sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/biktimentzako-laguntza-emakumeekiko-bortizkeria/web01-a2justic/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako hitzarmen horren lehen estipulazioak xedatzen duen moduan, programaren helburua hau da: laguntza juridiko espezializatua bermatzea etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren edo sexu-askatasunaren aurkako delitu baten biktima guztiei.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Elkargoek emandako sei hilean behingo memoriako datuen arabera, 2018an etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko eta ofiziozko txandaren zerbitzuak 4.319 kasutan jardun du (Arabian 688, Bizkaian 2.098 eta Gipuzkoan 1.533).

Guztira, doako laguntza juridikoa emateko 2.900 espediente egin dira (Arabian 577, Bizkaian 1.665 eta Gipuzkoan 678). Zerbitzuan 8 abokatu titular aritzen dira, eta 7 gehiago premia dagoenean.

Horri esker DLJren Legearen aplikazioa bultzatu da (oraintsu, biktimen arretaren atala aldatu da) eta, era berean, Abokatzaren Euskal Kontseiluarekin sinatutako hitzarmena bete da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimek eguneko 24 orduetan doako laguntza juridikoko zerbitzu bat edukitzeak garrantzia du gizartearentzat, betebeharrak legal eta hitzarmenezkoa bilakatu da eta geroz eta agerikoagoak dira gizartearentzat sortzen duen onura eta hartan daukan eragina. Abokatuen elkargoetako abokatuak ematen dute zerbitzu hori. Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen Arteko II. Akordio hori funtsezkoa da emakumeenganako indarkeriak eragiten dituen giza eskubideen urraketek aurre egiteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Etxeko indarkeriako txandan, letratuek jardun duten kasuen zk.	4.000	4.319



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Espetxeratuentzako lege-laguntza

2.- Araua

Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko erabakia,

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<http://www.euskadi.eus/p05aConsejoWar/consejosGobierno/verDocu/358044/2/?R01HNoPortal=true>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan preso dauden pertsonen doako lege-laguntza bermatzeko programa da, eta pertsona horiek beren zigorraren eraginpean ez dauden eskubideak erabili ahal izatea da haren helburua. 2018an 1.341 espetxeratu zeuden egoera horretan EAEn: 123 emakumezko eta 1.191 gizonezko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

4.372 alditan eman zaie laguntza juridikoa EAeko hiru espetxeetan giltzaperatuta dauden pertsonen (2.073 Araban, 1.221 Bizkaian eta 1.078 Gipuzkoan). 81 abokatuk jardun dute hiru espetxetan: Langraiz (57), Basauri (14) eta Martutene (10).

Programa honen emaitzek helburuak bete dituzte: lege-aholkularitza zerbitzuak eskatzen dituzten espetxeratuei (zigorra betetzen ari direnak zein behin-behinekoak) horien erabilera erraztea. Ahozko zein idatzizko kontsultak askotarikoak dira, guztiak ere espetxeratzearen ingurukoak (baimenen ukatzea, behin-behineko askatasuna, graduaren berraztertzea, zigorraren likidazioa, kexa-errekurtsoak, gradua berraztertze errekurtsoak, erreforma-errekurtsoak, apelazio-errekurtsoak) eta espetxez kanpokoak (epaitegiekiko harremanak, abokatu-laguntza eskaerak, kanporatze-aginduei buruzkoak...).

Gizartean eragina nabaria du, berari esker oinarrizko legezko eskubideak baliatu ahal baitituzte bestela baliatu ezin izango lituzketen pertsonen. Laguntza honek EAeko espetxeetan preso dauden pertsonen egoera hobetzen du, azken helburua haiek berriro gizarteratzea dela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Espetxeratuentzako Lege-Laguntzaren txandan, letratuek jardun duten kasuen zk.	4.000	4.319



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Doako laguntza juridikoa, Abokatuen Elkargoak. Abokatuen prestakuntza

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoari buruzkoa.

110/2012 DEKRETUA, ekainaren 19koa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

1/1996 Legea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-750>

110/2012 Dekretua:

[https://www.euskadi.eus/y22-](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPPage=bopv&R01HLang=eu&ed2012003072&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

[bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPPage=bopv&R01HLang=eu&ed2012003072&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPPage=bopv&R01HLang=eu&ed2012003072&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da doako laguntza juridikoko zerbitzuak emateko behar diren prestakuntza eta espezializazioa bermatzea, defentsarako eskubide konstituzionala bermatuko duen kalitatea eta gaitasuna ziurtatzeko, 1/1996 Legearen 25. artikuluan eta 110/2012 Dekretuaren 29. artikuluan jasotakori jarraituz. Etengabeko prestakuntza eta espezializazioa bereziki garrantzitsuak dira txandak erabiltzeko, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, adingabeei eta atzerritarrei epaiketetan laguntzeko eta haiek defendatzeko nahiz espetxeratuei lege-laguntza emateko arloetan, hain zuzen ere esparru espezifikoak direlako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ondorio hauek atera dira: emandako diru-laguntzei dagokienez, betetze maila % 100 da (hiru laguntza, abokatuen elkargo bakoitzak bat); guztira 49 prestakuntza-jarduera egin dira (helburutzat jo ziren 30 jarduerak baino %61 gehiago); prestakuntza-planari dagokionez, 48 jardueretatik % 80 gauzatzea espero zen, eta %47 gauzatu da (23 prestakuntza-jarduera), tartean aurreikusi gabeko 7 jarduera; gauzatze ekonomikoari dagokionez, elkargoek baliabide propioak erabili dituzte (11.747,26 €), eta kopuru horri gehitu behar zaizkio abokatuen hiru elkargoei guztira emandako 40.000 € (beraz, gauzatutako azken kostua 51.747,26€ da, hau da, diruz lagundutako kostua baino %30 gehiago, baina, aldi berean, elkargoek aurreikusitako kostuaren %58 baino ez da. Horrek esan nahi du Sailak aurkeztutako prestakuntza-jardueren kostuaren hiru laurden ordaindu dituela gutxi gorabehera.

Laburbilduz, aurrekontu-programaren magnitudeei erreparatuta, lortu diren emaitzek aise gainditu dituzte aurreikuspenak: dozenaka hitzaldi, jardunaldi eta ikastaro eman dira, oinarrikoak zein espezifikoak, nahitaezkoak zein hautazkoak, eta horri esker etengabeko prestakuntza jaso dute doako laguntza juridikoaren esparruan ofiziozko txandetan eta txanda espezializatuetan (genero-indarkeria, adingabeak,



atzerritarrek) diharduten ehunka abokatuk.

Agerikoa da etengabeko prestakuntza honek onura ekartzen diola gizarteari eta eragina daukala bertan; gainera, ezinbestekoa da, indarreko arautegian ezarrita dago eta (urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 25. artikulua).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza-jarduera egitekoak ziren zk.	30	49
Abokatuen Elkargoen kostuen aurreikuspena	89.495,30 €	40.000 € (aurrekontua)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntza Deialdi lehiakorra. Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzak ematearen gainekoa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko martxoaren 13koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801636e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804378e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko honako baldintza hauek betetzen dituzten proiektuak jaso ahal izango dute diru-laguntza:

- a) Espetxeetan hasten diren proiektuak dagokion espetxeko zuzendaritzak onartu beharko ditu.
- b) Espetxetik kanpoko baliabideekin gauzatuko dira eta honako modalitate hauetakoren bat izango da:
 - o Programatutako irteerak eta auzolandegiak.
 - o Egoitza- eta alojamendu-baliabideak.
 - o Mendekotasuna gainditzeko baliabideak droga mendekotasuna duten pertsonentzat.
 - o Prestakuntza- eta trebakuntza-zentroak.
 - o Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroak.
- c) Laguntza integraleko metodologia erabiliko dute.
- d) Proiektuak 2018an egingo dira.

Zigor askatasun-gabetzailea eteteko neurria jaso duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuek kasu hauetan jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak: aurreko paragrafoko baldintzak betetzen badituzte eta xedetzat prestakuntzarako programak, lanbide-programak, kultur programak, bide-hezkuntzako programak, sexu-hezkuntzako programak, ingurumena defendatzeko programak, animaliak babesteko programak, tratu berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako programak edo antzeko beste batzuk badituzte, edo alkoholaren, droga toxikoen edo substantzia estupefazianteen mendekotasuna gainditzeko programak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

Diruz lagundutako proiektuak 39 izan dira. Hauetakoak izan dira proiektuak:

- Programatutako irteerak eta auzolandegiak.: 4 proiektu.
- Egoitza- eta alojamendu-baliabideak. 5 proiektu.
- Mendekotasuna gainditzeko baliabideak droga mendekotasuna duten pertsonentzat. 6 proiektu.
- Prestakuntza- eta trebakuntza-zentroak. 16 proiektu.
- Lanerako orientazio- eta laguntza-zentroak. 8 proiektu.

Aurrekontu exekuzioa:

39 proiektuetarako diru-laguntzak osorik estali dute deialdiaren diru funtsa, hau da 500.000 € beraz, aurrekontua osorik exekutatu da.

Eragina jendartean

Deialdi honen eragina eta gizarte errentagarritasuna izugarria da. Espetxeen gaineko eskumena transferitu ez den arren, Eusko Jaurlaritzak 20 urte daramatza presoekin lan egiten duen Irabazi Asmorik Gabeko elkarteak laguntzen deialdi honen bitartez. Horrela, presoek baliabide sarea badaukate espetxetik kanpora irteteko aukera ematen diena baimenak gozatzen dituztenean, kartzelako hirugarren mailan, komunitatean modu positiboan integratu ahal izateko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	41	39